

Nik, Beatriz Unzue Esnaola, Amasa-Villabonako alkate naizenak maiatzaren 12an Diputatuen Kontseiluak onartutako Udalen Finantzaketarako Foru Funttsaren (aurrerantzean UFFF) inguruko erabakiarekiko nire ezadostasuna adierazi nahi dut eta erabaki hori salatu nahi dut.

Covid 19aren krisian ere, udalek lehen mailako erantzuna eman dugu. Ez dugu onartzen aldebakarrez harturiko erabaki hau eta irtenbidea adostea proposatzen diogu Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Honen aurrean honako proposamena egiten diot Gipuzkoako Foru Aldundiari:

1. Atzera bota dezala UFFF bueltatzeko onarturiko erabakia.
2. 2020ko aurrekontu aurreikuspenak bere horretan manten ditzala udalentsat.
3. Zerga bilketaren jaitsieraren ondorioz, UFFFaren beherakada itzultzeko hiru urteko epealdia ezartzea 2021ean hasita, inongo interesik gabe.
4. Gipuzkoako Foru Aldundiak 20 milioiko diru laguntza bat bidera dezala udaletara Covid-19aren krisiak sorturiko gain-kostuak arintzeko.

ALKATEAK



Izp.: BEATRIZ UNZUE ESNAOLA

*Amasa-Villabonan, 2020ko maiatzaren 13an*